

3 2 8
9 7 6
5 4 1



Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia
Archivo General del Gobierno Vasco

2010

Eusko Jaurlaritzako Artxibo Nagusia beharrezko azpiegitura bat da. Berau eraiki eta martxan jartzeak jarduera administratiboaren agiri-froga guztiak batzeko aukera ematen du, apaletan dituen 50 kilometro linealetan. Horrela, Administrazioaren kudeaketa bizkortuko duen tresna baten sorrera dugu hemen, sailburu nauen Jaurlaritzak lehentasunezko gaitzat jo duen gizarte-eskaera bat.

Gainera, asmo handiko proiektu bat da, non estetika ez den alde batera utzi, baina gehien nabarmendu behar dena bere funtzionalitatea da, eraikinaren diseinua erantzun behar dituen egin-kizunekin bat dator, eta helburu hori lortzeko garrantzi handia eman zaie bai segurtasunari bai dokumentuak zaintzeari bai energia-eraginkortasunari.

Administrazioaren eta herritarren zerbitzura dauden hiru euskarrri. Denbora joan ahala herri honen lekuko bilakatuko den administrazio-artxibo bati ezin hobe eusteko hiru zutabe.

Poztu gaitezen guztiok, artxiboa martxan jartzea, dudarik gabe, zorionekoak izateko benetako arrazoia baita.

Idoia Mendia Cueva

Justizia eta Herri Administrazioiko sailburua

Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia

2010 Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusiak Eusko Jaurlaritzaren eta beronen sailen zerbitzu guztiei dagozkien administrazio eta historia izaerako funtsak gorde eta zaintzen ditu, bai eta administrazioa publikoarenak eta euskal sektore publikoarenak ere.

Bulego artxibategien eta etorkizunean sortzekoa den Euskal Artxibo Historikoaren bitartean dagoen artxiboa da. Hura abian jarri artean, Artxibo Nagusia Artxibo Historikoa ere bada.

Izaera historikoa duten funtsen jatorria Estatu Administrazioak eta foru aldundiek duten dokumentazioan dago; izan ere, hainbat ahalmenen eskualdaketa dekretuei jarraituz, Euskadiko Administrazio Orokorraren eskuetara igaro zen. Dokumentazio horrek ez zuen berari zegokion artxibo-bizitza zikloa jarraitu, eta ez zen gorde berari zegokion artxibategi historikoetan; horregatik bulegoetan gordea izan zen. Hala, Eusko Jaurlaritzaren eskuetara igaro zen eta, ondoren, Artxibo Nagusira.

1980az geroztik, funts hauek handitu egiten dira urtez urte, Eusko Jaurlaritzaren bulegoetan sortutako administrazio-dokumentazioaren eraginez.



artxiboa



Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Nagusia 2010

Uztailaren 22ko w174/2003 Dekretua, Euskal Autonomi Erkidegoaren Herri Administrazioaren Artxibo Sistemaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa, argitaratzeak legezko estaldura eman dio lehenengo Eusko Jaurlaritza eratzearekin batera laurogeiko hamarkadan erabiltzen hasi zen sistema bati.

Artxibo Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiak eta Liburutegi Nagusiak egoitza eta giza eta material baliabide berbera partekatzen dute. Hala, Justizia eta Herri Administrazioaren Baliabide Orokorren Zuzendaritzari atxikitako Artxibo, Liburutegi eta Argitalpen Zerbitzua deritzonaren zati da orain.

Atxikimendu honek –zati batean bitarteko administrazio artxibategia delako– Administrazioari eta herritarrei zerbitzua ematea lehenetsi du, ikerketa historikoari baino gehiago. Orain gutxi arte, haiek izan dira Artxiboaren erabiltzaile nagusiak, baina, azken urteotan, ikertzaile kopurua handitzen ari da apurka-apurka.



Aurrekariak

1980az geroztik, hots, ahalmen edo eskumenen lehenengo eskualdaketak egin zirenetik, dokumentuak Artxibo Nagusian gordetzen hasi ziren, artxibo hau formalki eratu gabe bazegoen ere. Garai hartan, Artxiboak ez zuen dokumentuak antolatzeke langilerik, ez eta modu egokian gorde eta zainduak izateko lekurik ere; beraz, eskualdatutako zerbitzuak kudeatuko zituzteneko bulegoetan gorde ziren. 1981eko aurrekontuetan bada diru-partida bat Artxibo-Liburutegiko programarako bereziki gordea, eta, hala, Artxiboa ofizialki funtzionatzen hasi zen.

Non egon dira dokumentuak orain arte?

Artxibo Nagusia beti egon da beronen erabiltzaile nagusiarengandik –Euskal Administrazioa– hurbil, eta honekin batera joan da hazten. Hasiera batean, Vitoria-Gasteizko Lakua auzoko Wellington Dukea kaleko eraikinaren beheko solairuan eta sotoan egon zen kokatuta.

1997az geroztik, Donostia kaleko eraikin berrira lekualdatu zen. Hemen, beheko solairuaren zati batean eta lehenengo sotoan (bulegoak; kontsul-ta gela –Liburutegi Nagusiarekin partekatua– eta sailkatze gela) kokatuta dago; gordailuak, berriz, eraikin beraren bigarren sotoan. Hala ere, 1992an, zaintzarako kanpoko zerbitzuak kontratatatu zen,

Hil gutxietan, behin langile eta lokalen gutxiene-ko azpiegitura sortuta, administrazio bulegoeta-rik etorritako lehenengo dokumentu eskualdake-tak jaso ziren, baina urte batzuk geroago arte ez zen beharrik nabaritu Estatutik eskualdatutako dokumentazioa, hainbat lokal eta bulegotan sakabanatutakoa, sistematikoki jaso eta lantzeko. 1987an ekin zitzaion lan horri, Artxibo Nagusiak berariaz dokumentuak kudeatzeari emandako langile fakultatiboak kontratatatu zituenean.

eta hala funtzionatzen du harrezkero. Era horretan, gordailurako leku arazoa konpondu bada ere, erabiltzaileari arreta emateko zerbitzuari eta dokumentazioa eskualdatzeari dagokienez jardute prozedura berri bat sorraziti du.

Eraikin berria eraikita, egoera horri amaiera eman zaio, eta Artxibo Nagusiak badu zainketa, kontserbazio eta kontsultarako zerbitzu oso bat emateko nahikoa azpiegitura.

Eraikin berriaren ezaugarriak

Artxiboaren eraikin berria Iñaki Aspiazu Iza arki-tektoak eratutako Aldi baterako Enpresa Elkar-tearen eta LKS arkitektura eta ingeniari-tza ahol-kularitzaren proiektua da.

Eraikinak 9.582 metro koadroko lur-zatia bete-tzen du, eta 6.011 m²-ko eraikuntza-azalera du. Gainera, instalazioetarako 210 m²-ko eraikin la-gungarri bat ere eraiki da, Eusko Jaurlaritzarena den pabiloi bati erantsita.

Funtzionaltasuna

Funtzionalki eta bolumen-neurrien bidez erai-kinaren gune desberdinak bereiztea erabaki da, dokumentu batek sarreran (eta irteeran) jarrai-tzen dituen urratsak oinarri hartuta: harrera, ka-talogazioa eta agiriak egitea, eta gordetzea.

Harrerako hegala sarbideari paraleloan kokatua dago, eta bi karga-nasa bidez ematen die sarre-ra dokumentuei; era berean, harrera-hegalaren beste muturrean antolatzen da zentroko lan-gile eta bisitarien sarrera. Lehenengo solairuan, dokumentazioaren tratamendurako guneak eta bilera-aretoa kokatzen dira.

Bigarren hegalean, katalogazioa eta agiriak egi-tekoa, dokumentazioaren zirkulazioa antolatzen

Eraikina eraikitzeke, honako premisa hauek era-bili dira: argitasun funtzionala, denboran mal-gutasuna, arauak betetzean zorrozatasuna, zain-dutako dokumentuen babes gorena, instalazioen argitasun eskematikoa eta mantentze lanetan erraztasuna.

da gordailu guneke korridore robotizatu-ekiko perpendikularrean. Hortxe sailkatzen dute langi-leek jasotako materiala eta, garraiatzaileen bidez, gordailuko beso robotizatu-eta bideratzen dira.

Dokumentuak biltegitratzeko prozesuan azken fasea, eta garrantzitsuena, dokumentuak gor-detzearena da. Lan hau aurrean aipatutako bi hegalean atzean kokatutako korridore robotiza-tuetan azpizatitutako bolumen handi batean burutzen da.

Malgutasuna

Eraikinaren proiektua egitean, gerta daitezkeen handitze lanak edo erabilera aldaketak kontuan hartu dira. Korridoreak ipar-hego noranzkoan kokatu zitezen erabaki zen, eta harrera, katalogazioa eta agiriak egiteko gunea, haiei perpendiku-

larrean. Modu horretan, balizko handitze lanak burutzeko, korridore gehiago erantsiko lirakeke, eta harrera, katalogazio eta agiriak egiteko gu- neak luzatu.

Segurtasun arauak

Eraikinak zorrotz betetzen ditu segurtasun arauak. Arreta berezia jarri zaio Industri Establezi- menduetan Suteen aurkako Segurtasun Araudia zorrotz betetzeari. Araudi hori zorrozki betetzeko, eta artxibatutako dokumentuak suaren arriskue-

tatik babesteko garrantzi berezia kontuan har- tuta, artxiboa hamaika nukleo independente eta euren artean sektorizatutakoetan banatu da.

Zaindutako dokumentuen babes gorena

Arauek eskatutakoa zorrozki betetzeaz gain, zain- dutako dokumentuen garrantzia oso handia izaki, gutxiengoetatik haratago joan da suteak geratuz gero ahalik eta segurtasun handiena lortzeko.

Horregatik, korridore robotizatu guzti-guztiak tokibanatu egin dira itxitura bitartez, horietako batean gertatutako balizko sute bat instalazio osoan zabaldu ez dadin.

Illo berean, gordailu gunea azal bikoitz batez ba- bestea proposatu dute; horren bitartez, babes ge- higarria emateaz gain, bolumen honetan alboko zirkulazioa ahalbidetzen da, eta sutea izanez gero suhiltzaileen sarrera errazten da.

Artxibo sistema eta edukiera


Artxibo sistema pasillo robotizatu batzuetan dago eratuta, eta bakoitzak bi apalategi lerrori ematen die zerbitzu. Bestalde, zeharkako igogailu bat hainbat pasillotan ibiltzeko gai da, pasilloen hondoan zeharkako higidurarako kokatutako ko- rridorearen bitartez.

Biltegitratze unitatea metalezko kaxa itxia da, barruko dokumentuek sute arriskuari aurre egi- teko ahalik eta babes handiena izan dezaten. Era horretan, giroan dagoen hautsetik ere babestuta geratzen dira dokumentuak. Biltegitratze edukiera 50.000 metro lineal dira guztira.

Instalazioak eta mantentze lanak

Azal bikoitzari esker, instalazio eskema errazak egin ahal izan dira, eta, horrekin batera, eraikina- ren guneko guztietarako sarbidea dago, mantentze lanak erraz egin daitezkeelarik.

Airearen tratamendua, kasu honetan oso garran- tzitsua, bi jarduketetan banatzen da. Instalazioen zati bat gordailu guneko airea tratatzera emana da, tenperatura eta hezetasuna kontrolatuta; horretarako, korridoreei paraleloan doazkien hainbat bide erabiltzen dira. Instalazioaren beste zatia "ohiko" instalazioa da, eta harrera, sailkatze eta agiriak egiteko guneei ematen die zerbitzua.





Zenbat dokumentu gorde/zaintzen ditu?

Artxibo Nagusiak, 2010eko irailean, 466.600 dokumentu-kaxa ditu, eta Administrazioaren beraren eta herritarren 10.000 kontsultari erantzuten die urtean, bai partikularren kontsultak, bai ikerketa historikoko lanetarakoak kontuan hartuta.

Gehien kontsultatzen den dokumentazioa honako gai hauei buruzkoa izaten da: industri eta mehatze jarduerarako baimen eta kontrolari buruzkoa,

babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntza eta esleipenari buruzkoa, Administrazioaren ondarearen kudeaketa, aireko argazkigintza, fundazioak, ospitaleetako dokumentazioa, administrazio erregistroak, ibai ibilguetako lanetarako baimenak eta eraikuntza, hainbat gaitako administrazio emakidak, portu txikiak eta ikastetxeetan sortutako dokumentazioa.

Nola antolatzen dira funtsak?

Dokumentu-funtsen antolamendua funtzionala da eta bost mailatan dago egituratua: funtsa, azpi-funtsa, atala, azpiatala eta dokumentu-saila.

Funtsak: Administrazio autonomikoari esleitutako eskumen arlo handiekin datoz bat. Bi letra erabiltzen dira kodifikatzeko.

Azpi-funtsak: funts baten zatikiarekin datoz bat. Zatikiak izaera berezitua izango du gainontzekoekiko eta nolabaiteko autonomia duten menpeko erakunde administratiboek dagozkie. Hemen ere bi letra erabiltzen dira kodifikatzeko.

Atalak: ahalmen-arlo baten barruan arlo funtzionalak identifikatzen dituzte. Bi digitu erabiltzen dira kodifikatzeko.

Azpiatalak: atalaren izaerak beharrezko egiten badu sortzen dira. Letra bakarra erabiltzen da kodifikatzeko.

Dokumentu-saila: funtzio bat edo administrazio jardura bat betetzeko sortutako dokumentu edota espedienteak biltzen ditu. Hiru letra erabiltzen dira kodifikatzeko.

2010 Eskertzeak

Argitalpen honen edukia Eusko Jaurlaritzako Artxibo, Liburutegi eta Argitalpen Zerbitzuko langileen lana da. Justizia eta Herri Administrazio Sailak bereziki eman nahi dizkie eskerrak Begoña de Urigüen, Irune Zumalde, Jesus Valcarlos, Juan Pedro Alvarez, Antxon Larrañaga, Santiago Moreno, Balzola enpresa, ULMA, eta IAI arkitektura estudioari, bai eta zuzenean edo zeharka lan hau sortzen lagundu duten pertsona guztiei ere.

eranskina

Eranskina.
Funtsen antolamendu koadroa, atal mailara arte

AG-NEKAZARITZA (1939-2010)

- AG.01. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA
- AG.02. LANDA GARAPENA
- AG.03. NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIAK

NG-NEKAZARITZA GANBERAK (1939-1999)

- NG.01. ARABAKO NEKAZARITZA GANBERA
- NG.02. BIZKAIKO NEKAZARITZA GANBERA
- NG.03. GIPUZKOAKO NEKAZARITZA GANBERA

AP-HERRI ADMINISTRAZIOA (1950-2010)

- AP.01. FUNTZIO PUBLIKOA
- AP.02. BALIABIDE OROKORRAK
- AP.03. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA
- AP.04. INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK
- AP.05. ADMINISTRAZIOAREN MODERNIZAZIOA

- DB. DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGENTZIA (2004-2006)
- ET. EUSKALNET, S.A. (1992-1999)
- IV. HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA (1980-2010)
- IZ. IZENPE, S.A. ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA (2006-2010)
- EJ. EJIJE, S.A., EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA (1982-2006)

AS-GIZARTE GAIAK (1566-2010)

- AS.01. GIZARTE ONGIZATEA
- AS.02. GARAPENERAKO LAGUNTZA
- AS.03. DROGA-MENDEITASUNAK
- AS.04. IMMIGRAZIOA
- AS.05. EMAKUMEA
- AS.06. FAMILI ETA KOMUNITATE POLITIKA

EM. EMAKUNDE, EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA (1988-2006)

AU-URAK (1858-2010)

- AU.01. JABARI HIDRAULIKO PUBLIKOA
- AU.02. AZPIEGITURA HIDRAULIKOAN OBRAK
- AU.03. ANTOLAMENDU HIDROLOGIKOA

BA-BARNE ATALA (1978-2010)

- BA.01. JOKOA ETA IKUSKIZUNAK
- BA.02. TRAFIKOA
- BA.03. ERTZAINZAKO LANGILEEN KUDEAKETA
- BA.04. HAUTESKUNDE PROZESUAK

CO-MERKATARITZA (1980-2010)

- CO.01. BARNE MERKATARITZA
- CO.02. KANPO MERKATARITZA

CU-KULTURA (1879-2010)

- CU.01. KIROLAK
- CU.02. GAZTERIA
- CU.03. GIZARTE KOMUNIKABIDEAK
- CU.04. KULTUR ONDAREA
- CU.05. EUSKARAREN HIZKUNTZ POLITIKA
- CU.06. KULTUR SUSTAPENA

EM. EUSKAL MEDIA, S.A. (1990-1996)

EB-ETXEBIZITZA (1908-2010)

- EB.01. BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA
- EB.02. ETXEBIZITZA LIBREAK
- EB.03. HIRI ONDARE ERAIKIAREN KALITATE KONTROLA ETA HOBEKUNTZA
- EB.04. FINANTZA PLANGINTZA ETA KUDEAKETA ETXEBIZITZA GAETAN

- AL. ALOKAIRU ELKARTEA, S. A. (ALOKABIDE) (2000-2005)
- BZ. ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK KUDEATZEKO ELKARTE PUBLIKOA, S. A. (BIZIGUNE) (2003-2006)
- JG. HIRI JABETZA GANBERAK (1908-2007)
- OR. LUR-ZORUA KUDEATZEKO ZENTROA, ORUBIDE, S. A. (2000-2006)
- VS. EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA E.A. (VISESA)(1989-2005)

EC-EKONOMIA (1981-2010)

- EC.01. EKONOMIA PLANGINTZA
- EC.02. ESKUALDE POLITIKA
- EC.03. KONPENTENTZIA BABESTEAK

EU. EUSTAT-EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA (1986-2006)

ED-HEZKUNTZA (1832-2010)

- ED.01. IRAKASLEAK
- ED.02. BALIABIDE MATERIALAK
- ED.03. ZIENTZIA POLITIKA
- ED.04. UNIBERTSITATEAK
- ED.05. HEZKUNTZA IKUSKARITZA
- ED.06. HEZKUNTZA BERRIZTATZEA
- ED.07. IKASTETXEAK
- ED.08. HEZKUNTZA ADMINISTRAZIOA
- ED.09. ETENGABEKO LANBIDE HEZIKETA

UQ. UNIOUAL EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATEA EGIAZTATU ETA EBALUATZEKO AGENTZIA (2004-2008)

E-KANPOKOAK (1940-1992)

- EX.01 ARTXIBO PERTSONALAK

GA-GARRAIOAK (1820-2010)

- GA.01. GARRAIOAREN ANTOLAMENDUA
- GA.02. PORTUAK ETA ITSAS GAIAK
- GA.03. METEREOLOGIA
- GA.04. GARRAIO AZPIEGITURA

HA-OGASUNA (1978-2010)

- HA.01. KONTROL EKONOMIKOA
- HA.02. AURREKONTUAK
- HA.03. FINANTZAK
- HA.04. KONTRATAZIOA
- HA.05. ZERGA ADMINISTRAZIOA
- HA.06. ONDAREA ETA ARRISKUEN KUDEAKETA

IN-INDUSTRIA (1842-2010)

- IN.01. INDUSTRI ADMINISTRAZIOA
- IN.02. ENERGIA
- IN.03. TEKNOLOGIA BERRIKUNTZA
- IN.04. MEATZE ETA HARROBIAK
- IN.05. INDUSTRI POLITIKA
- IN.06. INDUSTRI SEGURTASUNA

SE. INDUSTRI ETA SEGURTASUN ZERBITZU PUBLIKOAK (SERPinsa) (1989-1993)
SP. INDUSTRIAREN SUSTAPEN ETA ERALDAKETARAKO BALTZUA (SPRI)(1981-2006)

JU-JUSTIZIA (1980-2010)

- JU.01. GIZA ESKUBIDEAK
- JU.02. JUSTIZIAKO LANGILEEN KUDEAKETA
- JU.03. BALIABIDE MATERIALAK
- JU.04. JUSTIZI ADMINISTRAZIOAREKIKO HARREMANAK

KS-KONTSUMOA (1981-2010)

- KS.01. KONTSUMOA

LE-LEHENDAKARITZA (1980-2010)

- LE.01. LEHENDAKARIAREN BULEGOA
- LE.02. KANPO EGINTZA
- LE.03. HARREMANAK EUSKAL KOLEKTIBITATEEKIN

MA-INGURUMENA (1962-2010)

- MA.01. INGURUMENAREN KALITATEA
- MA.02. BIODIBERTSITATEA ZAINZEA
- MA.03. INGURUMEN PLANGINTZA ETA KONTROLA

OA-ADMINISTRAZIO ANTOLAMENDUA (1978-2010)

- OA.01. SAILBURUAK
- OA.02. SAILBURUORDEAK
- OA.03. ZERBITZU ZUZENDARITZAK
- OA.04. LAGUNTZA KABINETEAK

OT-LURRALDE ANTOLAMENDUA (1954-2010)

- OT.01. LURRALDE PLANGINTZA
- OT.02. KARTOGRAFIA
- OT.03. LURRALDE PROGRAMAK

PE-ARRANTZA (1980-2010)

- PE.01. ARRANTZA

SA-OSASUNA (1506-2010)

SA.01. OSASUN PUBLIKOA
SA.02. OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUA
SA.03. OSASUN PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK
OS. OSAKIDETZA- EUSKAL OSASUN ZERBITZUA (1506-2010)

TR-LANA (1946-2010)

TR.01. GIZARTE EKONOMIA
TR.02. LANA ETA PRESTAKUNTZA
TR.03. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA

EG. EGAILAN, S.A. PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA SUSTATZEKO ELKARTEA (1997-2004)
HO. HOBETUZ, LANGILEEN PRESTAKUNTZARAKO EUSKAL FUNDAZIOA(1996-2006)
OL. OSALAN, LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA (1993-2010)

TU-TURISMOA (1970-2010)

TU.01. TURISMOA

UR-HIRIGINTZA (1948-2010)

UR.01. LURZORUAREN KUDEAKETA
UR.02. NAHITAEZKO DESJABETZE EPAIMAHAIK

VI-LEHENDAKARIODETZA (1978-2010)

VI.01. GOBERNU IDAZKARIA
VI.02. TOKI ADMINISTRAZIOA
VI.03. ARAUBIDE JURIDIKOA
VI.04. ESTATUTUAREN GARAPENA